


# KAZETARITZA LANBIDE IRRATI-KRONIKA



DBHko 3. maila. Hizkuntzen Trataera Bateraturako materialak

## PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

### NARRAZIO-TESTUAK

#### 1. Narrazio-testuen kokapena

Diskurtso-moten artean, narrazio-testua da erabiltzaileek testu-tipo guztietatik errazen bereizten dutena. Komunikazio-gaitasunaren garapenean, narrazioa da hiztunek bereganatzen duten lehen testu-egitura. Ikasleek narrazioaren superegitura bereizteko gai dira etapa goiztiarretik.

Hori dela eta, narrazio-testuak ikasleek behar duten hizkuntzaren oinarria dira, kontatzea eta informatzea hizkuntzaren oinarrizko funtzioak baitira. Horregatik, ez da harritzekoa, testu-tipoen sailkapen arruntenetan narrazio-testuak duen garrantzia, testu-tipo bereizia eta berezizat hartzen delarik.

Tipologia zabalduenak begiratutakoan, narrazio-testuaren honako ezaugarri hauek ikusten ditugu:

- asertzioari lotuta dago;
- denbora tarte batean gertatutako ekintzen bitartez antolatzen da, ondorioz, denbora-lokailu, ekintza-aditzak eta lehenaldiaren ardatzeko adizkiak izango dira ugari;
- testua eta enuntziatioaren ardatza ez daude plano berean, hori dela eta, enuntziatuaren denbora eta enuntziatioaren denboraren arteko distantzia nabarmendu eta lehenaldia eta elementu anaforiko ugari erabiliko dira;
- nahiz eta normalean Literaturarekin lotu, narrazioen erabilpen-eremua edozein izan daiteke, eta hedabideetan oso presentzia garrantzitsua daukate;
- narrazio-testua honako testu-genero hauetan agertzen da:
  - Literaturan: ipuinetan, nobeletan, kondairetan, erromantzetan, pastoraletan, baladetan...
  - Hedabideetan: albisteetan, kroniketan, erreportajeetan, publieerreportajeetan...
  - Eremu akademikoan: biografia historikoetan, zientzia-esperimentuetan, buruketetan...
  - Instituzioekiko harremanen eremuan: curriculumak, argiketa-agiriak, aktak...
  - pertsonen arteko harremanen eremuan: eskutitzak, egunkariak, txisteak, pasadizoak...

#### 2. Narrazio-testuen interes didaktikoa

Unitate didaktiko honen helburua narrazio-testuak lantzea da. Testu-tipo hori, bai ahozkoan bai idatzizkoan, ikasleen bizitzan ageri da oso umetatik, eskolan zein euren egunerokoan. Umeek narrazioa bizi dute eskolara hasi baino arinago, helduekin eta beste umeekin komunikazioa burutzeko istorioak, ekintzak edo eguneroko gertakarien narrazioak erabiliz. Eskolara sartzen

direnean, narrazio-testuekin beteriko mundua aurkitzen dute, eta berezitasun hori Bigarren Hezkuntzan ere mantenduko da. Esan beharra dago, hizkuntza ikasgaietan eta beste hainbat arlotan egingo duten lanaren zati handi bat burutzeko narrazioak erabiliko dituztela, bai literarioak bai bestelakoak.

Amaitzeko, ezinbestekoa da narrazio-testuen erabilera eta irakurmen-ohiturak garatzea bat datozela aipatzea. Narrazioaren mekanismoak ondo ezagutzen dituen eta irakurmenarekin gozatzen duen ikaslea, seguruenik, kulturadun munduan integratzeko moduko heldu irakurzale bihurtuko da.

## **HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA**

### **3. DBHrako PROIEKTUA**

#### **EUSKARA/GAZTELANIA/INGELESA**

3. DBHrako proposatzen dugun proiektu honek Hizkuntzen Trataera Bateratua deritzon programaren ildoari eusten dio. Ikasleek hiru narrazio-genero landu eta gauzatuko dituzte H1, H2 eta H3an; horretarako, narrazio-testuen edukiak eta trebetasunak gaztelania, euskara eta ingelesa ikasgaien artean banatuko ditugu.

#### **KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIKAPENA**

Hedabideen eragina nabarmena da gure gizartean. Hartzailleok, informazioa jasotzeko telebistako albistegiak ikusi, irratia entzun edo egunkari edo aldizkariaren bat irakurtzen dugu. Baina kazetariak ez digute guztiz azaltzen albiste horren atzean dagoen errealitate zabal eta konplexua. Egia esateko, ez dugu jakin nahi izaten, ezta horretan denbora gehiegirik eman nahi izaten ere: informazio gutxi eta momentukoa da nahi duguna.

Errealitatearen bertsio sinplifikatua da jasotzen duguna, kazetariak, informazioa prestatzerakoan, informazioari buruz duen jarreraren arabera den istorio itxurako narrazioa. Kazetariak duen jarreraren arabera genero ezberdinak daude kazetaritzan: genero batzuek informazioa bakarrik ematen digute; beste batzuek gertatutakoa baloratu eta interpretatzen dute; eta badira informazioa eta iritzia bateraturik eman ditzaketenak ere.

Narrazioaren baliabideak erabiltzeari esker albisteak interesgarriago eta entzungarriago bihurtzen ditugu. Albistea entretenigarria eta sinesgarria den kontakizun bihurtu behar dugu, eta aldi berean ez dugu ahaztu behar errealitatearen bertsio distorsionatua eta partziala dela.

Ikasleek beste ikasleentzat ekoiztuko dute euren narrazioa, eta horretarako behar dituzten baliabideak aztertuz joango dira, proiektuaren zehar azken ekoizpena sortu arte.

Hiru ekoizpen gauzatuko dira: H1ean, irradi-kronika ekoiztuko dute ikasleek; H2an, erreportajea; eta H3an, berriz, istorio digitala. Ekoizpenen gaiak aukeratzeko askatasuna izango dute ikasleek: gaia izan daiteke edo, hemerrotekako albisterei batean oinarrituta edo, biziako egoeraren batetik abiatuta edo, irakurriko duten liburutik hartutakoa.

## PROIEKTUAREN ARDATZ KOMUNA

**Tipoa:** Narrazio-testua

**Eremua:** Komunikabideetako hizkuntza

**Gaia:** Kazetaritza

### HELBURU OROKORRAK

- Informazioa eta/edo iritzia ematen duten kazetaritza-generoak bereiztea.
- Kronikaren, erreportajearen eta istorio digitalaren ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.
- Hautatutako generoetan, gertatutakoa baloratu eta interpretatzeko erabiltzen diren baliabideak ezagutzea eta ikertzea.
- Komunikabideen bitartez hedatzen den informazioaren aurrean zentzu kritikoa garatzea.
- Gaitasun linguistikoa hobetu nahian, norberaren ekoizpen linguistikoak zein besteenak baloratzen jakitea.

Lan-proposamen honetan ikasleek narrazio-testu bat ekoiztuko dute taldeka: irradi-kronika. Ikasleek askatasuna izango dute euren intereseko gaien bat aukeratzeko, betiere testu-generoaren ezaugarriak ahaztu gabe.

Lan egiteko, informazioa behaketa zuzenetik jasotzea proposatzen dugu; horrek ez du esan nahi, halere, beste hainbat iturritatik jasotzerik ez dutela (Internet, egunkariak, aldizkariak, nobelak...).

Lana ikastetxeko beste ikasleei igorriko diete: irratia edo megafonia sistema egonez gero, horietatik bat erabil dezakete irradi-kronika igortzeko; horrelakorik egon ezean, grabaketa klasean egingo da, eta gero, entzuleek entzungo dute.

### ONARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA

Erkidegoko curriculum berrian argi adierazten den legez, oinarrizko hezkuntzaren helburua honako hau da: pertsona helduak hezteak, euren ibilbide akademiko edo profesionalean aurkituko dituzten edozein egoerari aurre egiteko gai izango diren pertsonak hezteak. Horretarako, irakasgai guztiek, hizkuntza-irakasgaiak barne, bizitza osoan ikasten lagunduko duten oinarrizko zortzi gaitasunak garatzen lagundu behar dute, gaitasun horiei esker, pertsonaren errealizazioa, garapena, herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortuko baitira.

Kurrikulum berri horretan hauxe jotzen da oinarrizko gaitasuntzat: "jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzari egokituak, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat jotzen dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko".

Dakigunez, hizkuntzek garatzeko balio dute curriculum berriak ikasleen garapen pertsonal eta intelektuala lortzeko beharrezkotzat jotzen dituen oinarrizko gaitasun guztiak “tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko”.

Proposatutako HTB proiektua, ikasleen oinarrizko gaitasun horietatik gehienak garatzeko asmoarekin gauzatzen ari da. Hori dela eta, proiektu honetako ariketetan honako gaitasun hauek landuko dira argi eta garbi:

- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.**
- **Ikasten ikasteko gaitasuna.**
- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.**
- **Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.**
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.**

Ez da ahaztu behar, unitateak hobetu eta zabaldu daitezkeen proposamenak baino ez direla. Ondorioz, aipatutako gaitasunez aparte falta direnak ere lantzea posible izango litzateke.

## H1: EUSKARA

### Kazetaritza lanbide. Irrati-kronika

Ikasleak, taldeka bildurik, eurek aukeratutako ekitaldiren batera joango dira, eta gero, kronika prestatuko dute, gertakizuna entzuleei kontatzeko.

### KOMUNIKAZIO-EGOERA

Gaia: **Kazetaritza lantzen**

Igorlea: **DBHko hirugarren mailako talde bateko ikasleak**

Hartzailea: **Ikastetxeko beste ikasle guztiak**

Kanala: **Ahozkoa**

Asmoa eta helburua: **Ekitaldi edo gertaera bati buruzko kontaketa egitea.**

Argitalpen lekua: **Ikastetxeko irratia**

Eremua: **Komunikabideetako hizkuntza**

### TESTU GENEROEN ERREPERTORIOA

- Ipuinak
- Postalak
- Albisteak
- Kronika idatziak
- Irrati-kronikak
- Elkarrizketak
- Iritzi-artikuluak
- Instrukzioak
- Erreportajeak
- Irrati-nobelak
- Azalpen-testuak

## UNITATEAREN BIZKARREZURRA

0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa
<p style="text-align: center;"><b>1. lan-sekuentzia.</b> <b>Kronika, narrazio-generoetako bat</b></p> <p>1. jarduera. Narrazioak nonahi 2. jarduera. Kroniken ezaugarriak zehazten 3. jarduera. Egun, kronikak nolakoak eta norentzat 4. jarduera. Kronikaren gaia erabaki behar dugu</p>
<p style="text-align: center;"><b>2. lan-sekuentzia.</b> <b>Gertaerak nola kontatu aztertzen</b></p> <p>5. jarduera. Irrati-kroniken ezaugarriak 6. jarduera. Nork eta zelan kontatzen du kronika? 7. jarduera. Informatu eta interpretatu 8. jarduera. Zuen kronikaren ezaugarriak zehazten</p>
<p style="text-align: center;"><b>3. lan-sekuentzia. Kronika ondo idazten</b></p> <p>9. jarduera. Ondo idaztea prozesu luzea da 10. jarduera. Kronikaren eskema egiten 11. jarduera. Kronikaren ardatz kronologikoa 12. jarduera. Lexikoa lantzen 13. jarduera. Bizitako gertaera kontatzen</p>
<p style="text-align: center;"><b>4. lan-sekuentzia. Narrazioen dramatizazioa</b></p> <p>14. jarduera. Irrati-nobelak 15. jarduera. Esatari onaren ezaugarriak 16. jarduera. Dikzioa hobetzeko ariketak 17. jarduera. Intonazio eta ahoskera egokia ahozko testuetan</p>
<p style="text-align: center;"><b>5. lan-sekuentzia. Irrati-kronika grabatzen</b></p> <p>18. jarduera. Kronika ahozko jardunerako egituratzen 19. jarduera. Praktikatzen 20. jarduera. Entzuleentzako grabatzen</p>
Auto-ebaluazioa

## HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Testu-tipoa eta testu-generoa bereiztea; narrazio-testuak bereizten eta haien artean partekatzen dituzten ezaugarriak bereiztea.
2. Informazio egokia bilatzea eta aukeratzea azken produkzioari begira.
3. Irrati-kronikak genero gisa dituen ezaugarriak identifikatzea.
4. Gaztelaniaren eraginez aditzari loturiko transferentzi okerrak zuzentzea.
5. Informazio- eta interpretazio-testuetan erabiltzen diren baliabideen helburua bereiztea.
6. Kazetaritza-generoetan, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzea.
7. Ekoizpena planifikatzearen garrantzia ulertzea.
8. Kronikaren ezaugarri linguistikoetan sakontzea: denbora-ardatza, esataria, interpretazioa.
9. Ez-hitzezko baliabideek ahozko testuetan duten garrantzia ulertzea.
10. Talde lanean eztabaidatzen jakitea.
11. Kohesio elementuak zuzen erabiltzea.
12. Ikaskideek esaten dutena errespetatzea (lana eta iritziak).
13. Lana planifikatzea eta ondo garatzea.
14. Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkeztea, eta komunikazio-egoerari egokituta.
15. Ikaskideak kritikatzin eta haien kritikak onartzen jakitea.
16. Hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak azken ekoizpenean egoki erabiltzen jakitea.

## EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p><b>Narrazio testuak eta narrazio-generoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Narrazioen ezaugarriak behinenak</li> <li>Kazetaritza-generoen ezaugarriak</li> </ul>	<p>Narrazioen ezaugarriak aztertzea kontrol-orrien bidez</p>	<p>Euskalkiak errespetatzea</p>
<p><b>Kronika-motak</b></p>	<p>Kronika idatzien irakurketa erreflexiboa egitea</p>	<p>Ikaskideak errespetatzea</p>
<p><b>Irrati-kronikaren ezaugarriak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Denbora ardatza</li> <li>Esatari-motak: parte-hartzailea, lekukoa</li> <li>Informatu eta interpretatu</li> <li>Soinu baliabideak</li> </ul>	<p>Kronikaren gaia erabakitzea</p> <p>Irrati-kronika aztertzea eta euren kronikaren ezaugarriak erabakitzea</p>	<p>Talde lanetan eztabaidatzen jakitea</p> <p>Besteen ideien adierazpenen aurrean jarrera ireki eta errespetuzkoa izatea</p>
<p><b>Kronikaren gertakarien antolaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Egitura: ardatz kronologikoa</li> <li>Kohesio elementuak: denbora lokailuak eta antolatzaileak, sinonimoak</li> </ul>	<p>Behaketaren informazioa biltzea eta aukeratzea</p> <p>Narrazioak kronologikoki kontatzea</p>	<p>Interesa eta gogoia erakustea lana ahalik eta modurik erakargarrienean aurkezteko</p>
<p><b>Ahozko jarduna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hitzezko baliabideak</li> <li>Ez-hitzezko baliabideak</li> </ul>	<p>Testu koherentea lortzeko egitura eta kohesio elementuen erabilera aztertzea</p>	<p>Azken ekoizpena praktikatzeak duen garrantzia baloratzea</p>
<p><b>Testua ahozkorako egokitzen</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Idatzizko testuen ezaugarriak</li> <li>Ahozko testuen ezaugarriak</li> </ul>	<p>Ekoizpenaren plangintza egitea</p> <p>Testu idatzia ahozkorako egokitzea</p> <p>Kronikarako lagungarriak prestatzea</p> <p>Irrati-kronika praktikatzea, besteen kritikatzea eta besteen kritikak jasotzea</p>	<p>Komunikazio-arauak baloratzea eta errespetatzea</p> <p>Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkezteko interesa izatea</p>



## **EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

1. Narrazio-testuak eta kronikak identifikatzeko gai da.
2. Kronika beste kazetaritza-genero batzuetatik bereizteko gai da.
3. Azken produkziarako informazio egokia bilatzeko eta aukeratzeko gai da.
4. Gaztelaniaren eraginez aditzari loturiko transferentzi okerrak zuzentzeko gai da.
5. Kazetaritza-generoetan, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzen ditu.
6. Informazio eta interpretazio-testuetan erabiltzen diren baliabideen helburua bereizteko gai da.
7. Azken ekoizpena ondo planifikatzeko gai da.
8. Kronikaren ezaugarri linguistikoak era egokian erabiltzeko gai da.
9. Ahozko testuetan, ez-hitzezko baliabideek duten garrantzia ulertzeko gai da.
10. Talde-lanetan errespetuz eztabaidatzeko eta besteen iritzia onartzeko gai da.
11. Kohesio-elementuak identifikatzeko eta ondo erabiltzeko gai da.
12. Ikaskideek esaten dutena errespetatzeko gai da.
13. Azken ekoizpena txukun, ondo antolatuta eta hartzaileei ondo egokituta aurkezteko gai da.
14. Ikaskideak kritikatzeko eta baita haien kritikak onartzeko gai da.
15. Azken ekoizpenean hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiltzeko gai da.

## NOLA EBALUATU:

Irrati-kronika gauzatzeko prozesua eta azken emaitza bera baloratu beharko dira.

1. Ekoizpenak azken emaitzaren % 50 balio lezake.
2. Unitatearen bidez ikasi dutenak azken emaitzaren % 30 balio lezake, eta proba bidez baloratuko zaie.
3. Klasean egindako lanak, unitatean bertan daude hori ebaluatzeko jarduerak, azken emaitzaren % 20. balio lezake.

BAKOITZEAN EBALUATUKO DENA	
IRRATI-KRONIKIA	<p>9. Ahozko testuetan ez-hitzezko baliabideen garrantzia ulertzen du.</p> <p>8. Kronikaren ezaugarri linguistikoak era egokian erabiltzeko gai da.</p> <p>11. Kohesio-elementuak identifikatzeko eta ondo erabiltzeko gai da.</p> <p>13. Azken ekoizpena txukun, ondo antolatuta eta hartzaileei ondo egokituta aurkeztu du.</p> <p>15. Azken ekoizpenean hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiltzen ditu.</p>
PROBA	<p>1. Narrazio-testuak eta kronikak identifikatzeko gai da.</p> <p>2. Kronika beste kazetaritza-genero batzuetatik bereizteko gai da.</p> <p>4. Gaztelaniaren eraginez aditzari loturiko transferentzi okerrak zuzentzeko gai da.</p> <p>5. Kazetaritza-generoetan, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzen ditu.</p> <p>6. Informazio eta interpretazio-testuetan erabiltzen diren baliabideen helburua bereizteko gai da.</p>
KLASEKO LANA	<p>3. Azken produkziarako informazio egokia bilatzeko eta aukeratzeko gai da.</p> <p>7. Azken ekoizpena ondo planifikatzeko gai da.</p> <p>10. Talde lanetan errespetuz eztabaidatzen du eta beste inoren iritzia onartzeko gai da.</p> <p>13. Ikaskideek esaten dutena errespetatzeko gai da.</p> <p>14. Ikaskideak kritikatzeko eta baita haien kritikak onartzeko gai da.</p>

### 3. DBH: PROBA EREDUA

EMAITZAREN % 30

1. Gogoratu irrati-kronikari buruz ikusi duzun guztia eta honako hauek egin:
  - a. Adierazi zer testu-tipo den eta arrazoiak eman.
  - b. Azaldu irrati-kronikaren ezaugarri behinenak.
2. Ordenatu honako testu hau, eta ondoren azpimarratu denbora adierazteko balio dituzten hitzak eta esamoldeak

#### *Nire bizitzako unerik larriena*

*Gu heroinazaleak gara, eta ez dugu droga uzteko asmorik. Gaixo batzuk gara eta nahi dugun gauza bakarra ondo pasatzea da, eta gure nahia lortzeko hil egin behar bazaitugu inolako eskrupulorik gabe egingo dugu.*

**A**

Joan zen urteko neguan *paloa* eman zidaten Donostian. Nire kotxea irekitzen ari nintzela itxura txarreko bi gazte hurbildu zitzaizkidan eta nire bizitzako unerik larriena pasarazi zidaten. Soinean neramatzan diru, erloju, txamarra eta gainerakoak kendu zizkidan labana bat aurrean eta bestea atzean jarri ondoren.

**B**

Neuk bakarrik dakit ondorengo hilabeteetan nola pasatu nuen, alde guztietan fantasmak ikusten nituela.

**C**

Handik hilabete batzuetara Martuteneko espetxean sartu zituzten, gizon bat labanaz hiltzeagatik, itxura denez.

**D**

Orain, ordea, askotan ikusten ditut kalean, nik ezagutzen baititut biak eta haiek ni ere bai; baina beldurtu eta izutu ni bakarrik egiten naiz elkarrekin topo egitean.

**E**

Eskerrak egun hartan diru dezente nuen poltsikoan, bestela ez nintzen hau idazten arituko gaur. Bi mutil haien aurpegietan heriotza ikusi nuen marrazturik, argi eta garbi. Hona beraiek esandakoa:

**F**

Alde egin baino lehen nortasun-agiria eskatu zidaten, eta datu guztiak idatzi zituztenean argi ibiltzeko esan; norbaiti zerbait esaten banion, poliziarengana jo, edo beste arinkeriaren bat eginez gero... bazekitela ni non topatu. Eta hantxe bertan labanaz ebaki batzuk ez egin izana propinatzat hartzeko.

**G**

1.\_\_\_\_ 2.\_\_\_\_ 3.\_\_\_\_ 4.\_\_\_\_ 5.\_\_\_\_ 6.\_\_\_\_ 7.\_\_\_\_

Zure txanda da orain: konta ezazu idatziz zure bizitzako unerik larriena, baina lekukoa izan bazina legez.

3. Irakurri honako testu hauek eta galderak erantzun.

**EULIAK HARRAPATZEN, DIRUAREN TRUK**

2007/07/17

Txinan, euliekin sekulako arazo bat dago. Beroa dela eta, Xigong herri barrutian euli pila daude, eta Udalarik sekulako ideia xelebrea bururatu zaio. Dirua ematea harrapatutako euli bakoitzeko.



0,5 yuan (zazpi dolar zentabo) ematen dizkiete herritarrei akabatutako euli bakoitzeko. Hauek, udalera joan behar dute hildako euliekin, han banan-banan zenbatzen dituzte, hori dela eta, azkenaldi honetan udalean ilara luzeak ari dira egiten. Eta euli bakoitzarengatik zazpi dolar zentabo ematen dituztenez intsektu mordoxka bat behar da dolar bat egiteko.

Burutapenak sekulako arrakasta izan du eta indarrean jarri zenetik ehiztari asko daudela Xigongen esan daiteke.

Halere, kexak ere badaude, batzuek diotenez, jendea orain nahita ari dira kalea zikintzen euliak ugaltzeko eta horrela diru gehiago lortzeko. **A**

**Durangarrak indartsu baina garaipenik ez**

Maite Etxeita

Zaila izaten ari da Mallabiko futbol taldeari irabaztea. Liderrak dira eta asteburu erakusten dute zergatik dauden gorenean. Asteburuan ere, 3-2 irabazi zuten Hasi Durangoren aurka.

Durangarrak ondo hasi ziren, markagailuan lehen gola partidua hasi eta berehala eginez. Hala ere, Josu eta Manoloren golei esker partiduari buelta ematea lortu zuen Mallabiak.

Atsedendia ondoan, Zorik izugarritzko gola egin zuen eta 3-1ekoa jarri zuen markagailuan.

Dena dela, durangarrek ez zuten etsi eta bigarren gola egin zuten.

Partidua bukatzeaz zegoela, tentsio minutuak jokatu zituzten, durangarren golak egiteko nahia agerian geratu zelarik. Mallabitarren atezainak, ordea, izugarritzko geldituak egin zituen eta markagailua bere horretan mantentzea lortu zuen.

Datorren zapatuan Berrizen jokatuko dute mallabitarrek, bigarrenen aurka. **B**

a. Zer ezaugarrik bereizten dituzte testu biak?

---

---

---

---

---

---

b. Zein dira partekatzen dituzten ezaugarriak?

---

---

---

---

---

---

c. Zer testu-genero dira?

**A** \_\_\_\_\_ **B** \_\_\_\_\_

4. Irakurri testua eta egin ondokoa:

- a. Erabaki ondoko testu honetako adizkiak ondo dauden eta txarto daudenak zuzendu.

**Gizon batek hiltzat inskribatu du arreba,  
bizirik egoten dena, herentzia jasotzeko  
2007/03/12**

Ez zen egongo anaia arteko maitasuna bezalakorik! Baina ez kasu guztietan... edo zer pentsatuko ote du "hilda" dagoela enteratu den emakume horrek bere aniaz? Bazirudien diruak edozein gauza egitera bultzatzen dituela batzuk.

Maria Antonia Calvo gaixoak susto galanta hartzen zuen ezkontzeko paperak egiten hasi eta ezin zuela esan ziotenean, "hilda egoten zelako"! Izan ere, anaiak bere heriotza inskribatu zuen zegokion herentziaren zatia jasotzeko. Hori da hori "hilda" zaudela enteratzeko modua!

Emakumeak salaketa jartzen dio anaiari iruzurragatik eta dokumentu publikoa faltsutzeagatik eta Bartzelonako epaitegi batean kasuarekin aurrera egitea erabaki du.

Gutxienez, "berriz ere piztea" lortu du emakumeak, ofizialki bederen, Erregistro Zibilak bere heriotza deklaratzeko autoa bertan behera uzten duen beste auto judizial bat aurkeztuko baitu.

- b. Zer esan nahi du hitzek adiera denotatiboa eta adiera konnotatiboa dutela? Azaldu zure hitzekin.

---

---

---

- c. Azaldu zure hitzekin testuko honako esamolde hauek:

Diruak edozein gauza egitera bultzatzen gaitu

---

Susto galanta hartu

---

Berriz ere piztea lortu

---

Auto judiziala aurkeztu

---

5. Behean dagoen taulan agertzen diren ezaugarri guztietatik, irrati-kronika on bat emateko zuretzat **inportanteenak** diren bost ezaugarriak aukeratu, eta aukeraketa arrazoitu.

Behean dagoen taulan agertzen diren ezaugarri guztietatik, irrati-kronika on bat emateko zuretzat **inportanteak ez** diren bost ezaugarriak aukeratu, eta aukeraketa arrazoitu.

• Ahotsaren intonazio egokia, aldatu behar denean
• Batueraz hitz egitea
• Aditzak lehenaldiaren ardatzean erabiltzea
• Aldaketa fonetikoak egitea
• Irudi eta/edo grafikoak erabiltzea
• Kronika, osorik hartuta, ondo kohesionatuta egotea eta koherentea izatea
• Lelokeriak esatea
• Esaldi luzeak eta azalpen ugari ematea
• Kontaketa barneratu, eta irakurri beharrean, kontatu
• Musika edo girotzeko soinuak erabiltzea
• Modu egokian janztea
• Gertaerak kronologikoki azaltzea
• Aldez aurretik, saioa ondo planifikatzea eta praktikatzea
• Zure gustuko gai batez aritzea
• Humore ona izatea

## UNITATE DIDAKTIKOAREN JARDUERAK BIDERATZEKO ORIENTABIDEAK

Unitatearekin lanean hasi baino lehen, komenigarria da ikastetxean dauden baliabideak aztertzea: irrati-rik, megafonia-sistematik edo grabaketarako beste baliabide arruntik dagoen ikustea. Irrati-tailerrik badago, harekin batera lanean aritzea planteatu daiteke, ikasleen proiektuak garatzeko laguntza lor daiteke eta azken ekoizpenak irrati-tailerra ikasgaia ebaluatzeko ere erabil daitezke.

### Motibazio- eta negoziatio-jarduera/ 0. jarduera (saio 1)

Jarduera hau gaiari buruzko interesa eta eztabaida sortzeko proposatzen dugu. Lauko taldean egin beharko dute.

Lehenengo zatian, hedabideei buruzko galdesorta beteko dute. Horrela, zer dakiten ikusiko dugu eta gehienbat, munduan dauden hedabideen pertzepzio ezberdinak aztertuz hedabideei buruzko eztabaida sortuko da eta euren burua besteen lekuan jarriko dute. Erantzunak honako hauek dira:

	Telebista	Zinema	Irratia	Internet	Prentsa idatzia	Publizitatea
Noiz asmatu zen?	<u>1927.an</u>	<u>1895.an</u>	<u>1894an,</u>	<u>1973.an</u>	<u>K.a. 59.an.</u>	K.a. III.-II. mendean.
Nork asmatu zuen?	Charles F Jenkins-ek	Lumiere anaiek	Marconi-k	Vinton Cerf-ek	?	?
Non asmatu zen?	Britainia Handian	Frantzia	Italian	USA	Erromatar Inperioan	<i>Antzinako Egipton</i>
Idatzizkoa eta/edo ahozkoa	Biak	Biak	Ahozkoa	Biak	Idatzizkoa	Biak
Ordenatu duen garrantziaren arabera						
Zein herrialdeetan da hedabiderik garrantzitsuena?	Garatuetan eta garapen bidean daudenetan	Herrialde garatuetan	Herrialde ez-garatuetan	Herrialde garatuetan	Herrialde garatuetan	Herrialde garatuetan / guztietan
Bat-batekotasuna?	Bai	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez
Atalak edo saio ezagunak						

Linkak: <http://en.wikipedia.org/> [http:// eta /www.ideafinder.com/history/inventions/internet.htm](http://www.ideafinder.com/history/inventions/internet.htm)

Bigarren zatian, ikasbil.net-etik ateratako irrati-kronika entzun eta galdesorta erantzungo dute. Entzumena garatu eta, gehienbat komunikabideek gaur egun duten botereari buruzko eztabaida piztea da helburua. Horrekin lotuta, kazetariak duten boterea ondo erabiltzeko edo mugatzeko gaztelaniako unitatean kazetari onaren dekalogoia eztabaidatuko dute.

Hirugarren zatian, gaztelanian adostu duten dekalogotik irrati-kronika egiteko orduan zer ezaugarri hartuko duten kontuan erabakiko dute; ahozkotasanari lotutako oinarritzko ezaugarriak gehitu behar dituzte, hemen.

Amaitzeko, negoziazio atala dugu, ikasleek azken ekoizpena burutzeko zer beharko duten aztertu eta hausnartuko dute. Ikasleek ezin dute askorik kendu taulako proposamenetatik; agian, beste proposamen batzuk erantsi ahal izango dituzte. Kentzekotan, ebaluatzeko proposamen batzuk ken ditzakete.

## 1. lan-sekuentzia

Landutako irrati-kronikak grabatu egingo direnez, grabazioak unitatearen materialari gehi diezazkioke; horrela, erabilgarri egongo dira ondorengo ikasturteetarako. Izan ere, horrelako materiala, benetakoa eta ikasleen mailatik hurbil dagoena, izatea primerakoa da.

### 1. jarduera. (saio 1 eta erdi)

Narrazio-testuak ezagutzen dituztenez, lan-sekuentzia honen hasieran duten eskematxoak testu-mota horren oinarritzko ezaugarriak gogoratzeko balio du. Jarduera honetan, narrazioen ezaugarriak zein diren jakitea baino inportanteago da eremu guztietan narrazioak daudela ulertzea, ez bakarrik Literaturan; horrela, erabilpen-eremuak eta testu-tipoak beti batera ez doazela ikusiko dute.

Kronika narrazio-testu konkretu bat dela ikusiko dute, beste narrazio-testu batzuetatik bereizten dituen ezaugarriak dituela: genero konkretu baten ezaugarriak (gaurkotasuna duten gertaera errealak dira) eta erabilpen-eremu konkretu bateko ekoizpen izatea.

### 2. jarduera. (saio erdia)

1 jardueraren jarraipena dugu hau. Hemen, kronikari buruz uste dutena egia ote den egiaztatuko dute ikasleek.

Hemen dituzue kronikaren ezaugarri bereizgarrienak: lehenengo, gaztelaniaz, azpimarratuta, eta ondoren, euskaraz:

Una **crónica** es una obra literaria que narra hechos históricos en orden cronológico. En la crónica (en latín *chronica*, en griego *kronika*, que significa Biblia o libros) los hechos se refieren en orden temporal y se define como una historia escrita por testigos oculares o contemporáneos y en donde se observan el orden de los acontecimientos en el tiempo.



## KRONIKAREN EZAUGARRIAK

- Kontaketa da.
- Literarioa da: hizkuntza zaindua.
- Gertatutakoa ordena kronologikoan dago.
- Idazleak gertakizunaren lekuko izan behar du, edo behintzat inguruan egon behar du.
- Balorazio subjektiboa jasotzen du.

### 3. jarduera. (saio 1)

Jarduera honen lehenengo zatian, 2. jardueran ikusitako ezaugarriak gaur egungo kronika batean bilatuko dituzte.

Bigarren zatian, euskalkien gaiari ekingo diogu. Azken ekoizpena ahozkoa izateak eta kontuan izanda irratiak eskatzen duen artifizialtasun falta eta bizitasuna, pentsatu dugu eztabaida hau planteatzea egoki izan daitekeela. Kronikariek entzuleak nortzuk diren kontuan izan behar dute. Baina, nahiz eta euskalkian aritzea erabaki, betiere erregistro formala mantendu beharra dute. Ikasleek hori dena baloratu eta erabaki arrazoitua hartu beharko dute.

### Hizkuntza-erregistroak

Los registros lingüísticos	
entre amigos íntimos	familiar
entre vecinos, compañeros de trabajo, etc.	amistoso
encuentro con desconocidos, peticiones en ventanilla, etc.	neutro
conferencias, exámenes, etc.	elevado
ceremonias	ritual

**Erregistroa** da hiztun bateko egoera komunikatibo jakin batera moldatzeko aukeratzen dituen hizkuntzaren berezitasunen aldaera.

**Komunikazio gaitasunak** zehazten du erregistroa gehiago edo gutxiago menderatzea; hau da, egoera ezberdinetan hizkuntza nola erabili jakiteak zehaztuko du. Erregistro ezberdinen artean gradu ezberdinak bakarrik bereiz daitezke ondorengo bi mailatan: **formaltasuna** (erregistro formalak eta informalak) eta **plangintza** (aurrez prestatutakoak edo bat-batekoak).

3.3. ariketako lana ebaluaziorako erabil daiteke.

#### 4. jarduera. (saio 1)

Kronika-mota hitzaren gainean klikatu eta KRONIKAK dokumentua irekiko da; hor, hainbat kronika-mota ezberdin daude ikasleei banatzeko. Beste aukera bat hemerrotekako kronikak erabiltzea da.

Kronikaren gaiaren proposamenen arabera egin ditzake irakasleak taldeak; hots, antzeko interesak dituzten ikasleak batu.

Inportantea da gaia erabaki ostean ikasleak kronikarako **informazioa biltzen hastea**. Ekitaldiren batera joan beharko dute eta biltzen duten informazioa kronika idazteko nahikoa den ikusi beharko dute. Gero, erabaki beharko dute falta den informazioa asmatu beharra duten edo beste ekitaldiren batera joatea komeni zaien informazioa gehitzeko.

10. jardueran, aurretik bildutako informazioarekin lanean hasi beharko direnez, eta sekuentzia kronologikoetan ordenatu beharko dutenez, ondo legoke informazio bilketa nola doan noizbehinka galdetzea.

## 2. lan-sekuentzia

#### 5. jarduera. (saio 1)

Pou anaiari gertatutakoaren irradi-kronika entzun eta irradi-kronikaren ezaugarriak atera. Jarduera honen helburua berez ez da gertatutakoa aztertzea euren kronikaren ezaugarriak erabakitzen astea baino. Kronikaren gaia oso erakargarria izan daiteke eta eztabaida pizteko aproposa ere bai. Horretarako, mendizaleek izan zuten eta eurek izan zezaketen portaerari buruzko galdera etikoak planteatu al dizkie irakasleak ikasleei.

Honako hau da Pou anaien kronikarentzako proposatutako egitura:

<b>POU ANAIK ERRESKATE LANETAN</b> <b>KRONIKAREN TRANSKRIPZIOA</b> Joan zen asteartean, Pirinioetan lan egiten duten hiru mendizale, goi-menditako gidak hirurak, erreskatatu zituzten Eneko eta Ikerren lanetik abiatuta. Kirol-erronka bat ezartzea eta gisa-erronkari aurre egitea, bitan pentsatu gabeko erabakia izan zen Poutarrentzat, anaiarentzat. Garrantzia zerk duen oso garbi dute biak. <b>Musika</b> Aurreko asteko astelehenean, egin zuten horma oinerainoko bidea, hurrengo egunean gailurrerako hirugarren saialdia egiteko. Hori izan zen, geuk kontatu genizuen joan den astean. Baina eguraldi kaskarrak, orduko hartan, eta beste behin esan beharko genuke, gerarazi egin zituen. Baina, behera egin beharrean lekuan bertan, hormaren oinean, itxarotea erabaki zuten, nahiz bibaka egiteko materialik ez zuten. Hartan zirela egin zuten topo hiru frantziarrek, aipatutako hiru lagunekin. Beherantz zihoazen horiek, gailurrik lortu gabe baina, bezperan lan ona eginda mendian. Elkarrekin solasaldi labur bat, eta adio. Momentu hartan, asteleheneetik asteartera bitarteko gau erdia zen. <b>Musika</b> Enekok eta Ikerrek ez zuten han luzaroan izan. Hotza, elurra, haizea, haiak ez ziren baldintzak han egoteko, eta behera egitea, Paso Superior delakora, jaistea erabaki zuten. Lau bat orduko jaitziera da.	<b>KOKAPENA/ MARKOA</b>  <i>Kronika kokatzen</i>  <i>Aurretiaz dakigun informazioa</i>  <b>GERTATUTAKOA /KORAPILOA</b>  <i>Gertaerak</i>
--	--

Eta orduan, golpea, oihu batzuk entzun zituzten laguntza eske, frantziarrak ziren oihuka. Haietako bi 60 metro amildu ziren, lotuta zireneko bilera hautsi ostean. Hirugarrena horman geratu zen, sokarik gabe, ez gora eta ez behera, eta esandakoa Poutarrek erreskateari ekin zioten. Bestelako beldurrik bazuten ere, amildu ziren biak bizirik zeudela baieztatu zuten. Gogor lan eginda hirurak leku babesera ekarri zituzten lehenik, eta segidan, okarren zegoen laguna Paso Superior-era eraman zuten. Besteak bide erditan ezarria zuten kanpaleku batean geratu ziren, haien bila nor joango zen. Bada, horretarako biltzen saiatu ziren Poutarrek jendea, behin Paso Superiorren zeudenean, han bertan bildutako eskalatzaileren artean baina bi eskalatzaille britainiarrek soilik erabaki zuten laguntzen joatea. Han ziren gehienek ez zieten kasurik egin. Bakoitzak berera jarraitu zuen, bazekiten-eta erreskatean murgilduz gero, hain gailurrerako saialdia bertan behera utzi beharko zutela.

#### **Musika**

Horregatik, dakarkigu gaur hausnarketa proposamena. Egin beharrekoa, pertsona batzuk 2500 m garaieratik 1000 metrora jaitea zen, glaziar baten barrenan lehenik, eta mendi bide batean segidan. Garaieraren aitzakiarik ez, arrisku teknikoaren aitzakiarik ez, norbere interesa arrazoi bide, eta hara, gehiengoak zer erabaki zuen, bakoitzak bere zilborrari begira geratzea.

#### **Musika**

Poutarren eta britainiarren artean jaitsi zituzten hartara frantziarrak, Paso Superiorrera. Ordurako, Rio Blanco kanpamenduan Paso Superiorretik behera, hurrengo kanpamendua lau orduko bidean, Javi Baraiazarra eta Gotzon Arribasek Eneko eta Ikerrekin talkies, walki-talkies hitz egin ostean erreskate nagusia martxan jarri zuten, euren borondate hutsez horretan jardun zuten gazteak, El Chalten herrian, mendian beherago oraindik beste bi orduko bidean laster asko antolatu ziren, eta baita gora igo ere. Militarren helikopteroa deitu zuten, Rio Blancora igo zena. Azkenean, denen artean lortu zuten, hiru frantziarrek onik erreskatatzea. Hura bai hura garaipena.

#### **Musika**

Zapore mingotsa gerorako gertakariak utzi diete egia esan. Asteazkenean, Rio Blanco kanpamenduan hartu zuten atsedena, eta ostegunean, joan zeneko ostegunean, Paso Superiorrera igotzea erabaki zuten. Hurrengo egunerako azken ahaleginaren itzaropena gordeta, nekeak jota, erreskate jardunagatik eta eguraldi iragarpen txarrarekin, baina hala ere gora. Osteguna zen eguraldi oneko eguna, hainbat eskalatzailleek ondo probestu zuten gailurrera irizteko hainbat horien artean, asko ziren aurreko egunean erreskatean parte hartzeari uko egin ziotenak.

#### **Musika**

Bada, gora igo ziren, Eneko eta Iker bai, baina alperrik. Ostiralean, eguraldiak berriro okerrera, eta hartatik, amore eman behar. Akabo Fitzroy-eko ahaleginak. Zapore mingotsa hartatik, baina gozoaren gozoa, frantziar lagunekin gero ja behin El Chaltenera jaitsi zirenean, haien berri jakin zutenean eta haiekin bildu zirenean.

Esanak bezala, asteburua El Chalten herrian pasatu dute, gaur goizeko kontuak dira, nola ja El Chalten han bertan hilabete eta erdia egon eta gero hango lagunak eta guzti agurtu zituzten eta Calafate herrira nola joan diren. Calafate herrian egonaldi txikia egon eta aurki izango dira Buenos Aires herrian lehenik eta Buenos Airesetik Euskal Herrira zuzenean datorren ostegunean iristeko zorian, kinka horretan. Beraz, euskal espedizioa bueltan laster, zazpi pareta zazpi kontinenteko proiektu honen berezitasunak, haien hitzetan entzungo ditugu.

Hausnarketa

Gertaerak

BUKAERA/  
KONPONBIDEA

Kronika honetan, esataria ez da ez lekukoa, ez parte-hartzailea; horregatik, hirugarren aukera bat jarri dugu, irekia. Azken aukera hori hirugarren pertsonan idatzitako kronika da: kontatzen duenak ez digu ikusitakoa kontatzen, parte-hartzaileak hari kontatutakoa baino. Hala eta guztiz ere, ikasleek euren kronika idazteko izango dituzten aukerak beste biak dira: lekuko legez edo parte-hartzaile legez idazten direnak, alegia.

Jarduera honetan, irrati-saioa nola banatuko duten pentsatzen hasi beharko dute eta zer musika sartuko duten, noiz, e.a.

Oharra: baliabideetan, irrati-kronikaren transkripzioa duzue. Horrekin batera, Iker Pouk idatzitako kronika duzue gaztelaniaz, lehenengo pertsonan dago eta kazetari batek idatzitako sarreratxoa ere badu. Material aproposa izan daiteke kronikak kontatzeko hainbat era dagoela ikusteko, baita gaztelania eta euskarazko kronikek partekatzen eta bereizten dituzten ezaugarriak ikusteko ere.

## 6. jarduera. (saio 1 eta erdi)

Jarduera honetan, helburu bi ditugu. Bata, ikasleek argi izatea kontakizuna kontatzeko dituzten aukerak, gero 8. jardueran erabaki dezaten: nork kontatzen duen kronika eta zer denbora ardatzean. Bestea, ikasleen aditz-denbora eta -aspektuari lotutako akats ohikoenak zuzentzea.

### Lau gazte (*hil*) \_\_\_\_\_ Madrilen izandako auto-istripu batean

2007/10/03

20-30 urte bitarteko gazteak (*joan*) \_\_\_\_\_ autoak aurrez aurre (*jo*) \_\_\_\_\_ beste batekin; lau gazteak bertan (*hil*) \_\_\_\_\_ eta beste ibilgailuko gidaria larri (*egon*) \_\_\_\_\_. Bihurgunerik gabeko eta ikuspen handiko bide batean (*jazo*) \_\_\_\_\_ istripua.



Gazte baten gorpua eramaten. Argazkia: EFE

Istripu larria (*izan*) \_\_\_\_\_ gaur goizean Madril inguruan. Bi autok aurrez aurre (*jo*) \_\_\_\_\_ M-119 errepideko 13. kilometroan, Valdeaveron, eta ondorioz lau gazte (20-30 urte bitartekoak) (*hil*) \_\_\_\_\_ eta emakume bat (34 urte) zauritu. Hasiera batean arin (*zauritu*) \_\_\_\_\_-la zabaldu bada ere, zauri larriak (*eduki*) \_\_\_\_\_-ela (*esan*) \_\_\_\_\_ medikuek gero.

112 larrialdietarako zerbitzutik (*jakinarazi*) \_\_\_\_\_-nez, Madrilgo Erkidegoko lau suhiltzaile talde, bi anbulantzia, helikoptero bat eta Guardia Zibileko agenteak (*bertaratu*) \_\_\_\_\_ istripua izan den tokira.

Istripuaren arrazoiak (*ikertu*) \_\_\_\_\_; izan ere, ikuspen handiko (ez zegoen bihurguneri, gainera) gune batean (*jazo*) \_\_\_\_\_. Dena dela, errepidea bustita (*egon*) \_\_\_\_\_ euriaren eraginez, eta baliteke istripua horrek eragin izana.

## 7. jarduera. (saio 1)

Informazioaren eta interpretazioaren arteko aldeak aztertuko dituzte, nola kasu bakoitzean erabiltzen ditugun ezaugarri linguistikoak ezberdinak diren.

Albiste eta kronikaren arteko begi-bistako ezberdintasun nabarmen batzuek ohartu behar dira. Albistek, batetik, ez daude sinatuta eta data agertu behar dute beti. Kronikak, bestetik, beti doaz sinatuta eta ez dute datarik behar: normalean entzuleek kontatuko denaren berri badutenez, errazago zaie kontatzen zaiena denboran kokatzea.

Jarduera honetan derrigorrezkoa da ikasleen arteko interakzioa; hortaz, ikasleok talde lanaren ondorioz sortuko dituzte erantzunak.

## 8. jarduera. (saio erdi)


Sortuko duten irrati-kronikaren ezaugarriak zehaztuko dituzte ikasleek; horretarako, sekuentzia honetan ikusitakoa birpasatu eta aztertu ondoren kronikaren ezaugarriak erabakiko dituzte, hartutako erabakiak azaltzeko gai izan beharko dira.

## 3. lan-sekuentzia

## 9. jarduera. (saio erdi)

Jarduera honen helburua da ikasleak konturatzea testua idaztea prozesu luzea dela, ondo planifikatutako lanaren garrantzia ulertzea.

### NARRAZIOAK IDAZTEKO PROZEDURA



Interesgarria izan daiteke ere Vernerri buruzko biografiarekin jardueraren bat egitea, azken finean, biografiak narrazio-testuak dira ere.

Horrek Julio Verne ezagutzeko aukera emango die ikasleei. Haren bizitzako informazio gehiago aipatu nahi badiezue ikasleei, hona hemen lagungarri izan daitezkeen helbide batzuk eta testu bat:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Julio\\_Verne](http://es.wikipedia.org/wiki/Julio_Verne)

<http://julesverne.gipuzkoakultura.net/>

### JULES VERNE -BIZITZA. BESTE FIKZIO BAT

Joan Manuel Soldevilla Albertí

Segur aski Julio Vernerri buruz gaurdaino idatzi den biografiarik garrantzitsuenean (Jules Verne, Anagrama, 1998), Herbert Lottmanek xehetasunez betetako ibilaldia egiten du nobelagile ospetsuaren bizitzan barrena. Atsegina, zehatza eta sutsua, biografo estatubatuarrak datu objektiboez gain kondairen eta zurrumurruez osatutako bizitza baten zertzelada guztiak errepasatzen ditu. Bitxikeria bat: liburuak dituen laurhunen bat orrietan, Lottmanek era honetako esamoldeak erabiltzen ditu: “kondairak dioenez...”, “ zurrumurruek diote garai hartan...”, hogeita bost aldiz baino gehiagotan!. Verne ez zen aspaldiko garaietan bizi izan zen idazlea, gutun-liburu ugaria utzi zuen, ez zen gizartetik urrunduta bizi izan zen

anakoreta bat, aldiz bere herrialdeko kulturen eta politikan parte hartu zuen, bizi zen bitartean mundu osoan ezaguna izan zen, garai hartan hedabideak garrantzia handia eskuratzen hasi baitziren. Alabaina, biografoa haren bizitzaren oroitzapen ororen inguruan dauden kondaira, zurrumurru eta informazio zehaztugabeak aipatu beharrean aurkitzen da. Biografia beste fikzio bat balitz bezala, non benetako datuak eta irudikatutakoak zehaztugabeko lurralde komun batean bizi baitira.

### **Benetako biografia**

Jules Verne Nantesen jaio zen 1828an familia burges batean. Aita abokatu ospetsua zen eta semeari heziketa zorrotza eman zion familiako tradizioari hel ziezaion; horrela bada, 1848an Jules Verne gaztea Parisera joan zen zuzenbide ikasketak hasteko xedez. Frantziako hiriburuko kultur munduak liluratuta, Vernek bere literatur bokazioa ernatzen ikusi zuen eta ahalegin guztiak horretara bideratu zituen. Hasiera batean antzerki munduan saiatu zen lehenengo ohoreak lortzen, baina Pierre-Jules Hetzel editorea ezagutu zuenean gertatu zen erabateko aldaketa bere bizitzan. Editoreak 1866an, idazlearengan ustea jarritz, lehen eleberria argitaratu zion, Bost aste globoan, eta handik aurrera irakurle guztien aitortpena jaso zuen literatur jarduera paregabearekin hasiera eman zion. Hori baino lehen, 1857an, alargun gazte batekin ezkondu zen, Honorine de Fraysserekin, eta 1862an seme bat izan zuten, Michel. Amiens herrira joan zen bizitzera, lasai bizi izan zen idazten zituen eleberrieekin eta lan horietako batzuekin egindako antzerki egokitzapenek lortutako arrakastari esker aberastu egin zen. Hiru itsasontzi erosi zituen, dezente nabigatu zuen, Frantziako kultura ofizialak ez zuen inoiz aintzatetsi baina beti izan zuen irakurleen erantzun sutua. Itsu eta ospetsu hil zen 1905ean.

### **Biografia literarioa**

Bizitzak kontatuak izateko omen dira, edo horrela dio behintzat Gabriel García Márquezek. Esan daiteke Verne Nantesen jaio zela, eta hori egia historikoa da. Baina, era berean, esan daiteke irla batean jaio zela, eta hori ere egia historikoa da baina askoz ere literarioagoa. XIX. mendearen hasieran, Nantes Britainiako ibai-portu garrantzitsua zen; armadoreak, batez ere, esklaboen trafikoarekin aberastu ziren eta Nantes atlantiko kostaldean Loiraren bokalaren inguruan eraikitako hiri jendetsu, eraginkor eta aktiboa zen. Vernereren familia Feydeau irlan bizi zen, ibaiak hirigunetik igarotzean inguratzen zuen lurzati zabal batean, burgesia ahaltsuak luxuzko auzo bihurtu zuena. Gaur egun irla hori, irla gisa, ez dago, hiriko hedadura urbanistikoak irentsi baitzuen, baina predestinazio literario ederra izan zen, nabigatzaile, itsasoan galdutako eta robinsoni buruz irrikaz hitz egin zuen hura gaur egun ikusezina den irla batean jaio izana.

Fikzio sortzaile handienaren bizitzak beti dauka fikzioa bailitzan kontatua izateko arriskua edo abantaila. Benetakoa eta irudikatutakoa nahastu egiten dira. Batzuetan kontatzen dena egia bihurtutako gezur bat da eta beste batzuetan gezurra dirudien egia. 1886ko egun batean, zoroaldi harrigarri batean, bere iloba kutunena, Gaston, kalera irten zen osaba akabatzeko asmotan. Tirokatu ondoren, Julio Verne zaurituta gelditzen da eta ordutik aurrera, herren, betirako utzi beharko du bere pasio nagusietako bat, nabigazioa. Idaztera kondenatutako idazlea, bidaiak amestera eta berak zuzenean bizitzerik ez izatera kondenatuta, literatura hutsa dirudien benetako patu tragikoa.

### **Biografia faltsua**

Duela gutxi arte, Vernereren biografieta saiatzen ziren egiazko gisa kontatzen txikitako gertaera bat, inondik ere faltsua zena. Haurra zela, Verne ameslaria zeharo maitemindu zen bere lehengusina Carolinaz; bere jarrera abenturazalea eta ausarta erakutsi nahian, etxetik alde egin zuen eta itsasontzi batean ontziratu zen itsasmutil bezala lurralde exotikoetara abiatzeko prest. Aita zorrotza, semearen asmo arriskutsuaz ohartarazita, haren bila joan zen eta ontzia geldiaraztea lortu zuen Saint Nazaire kaian zegoenean; etxera itzulitakoan jaso zuen jipoi latzak eta jarri zioten zigorrak berriz alde egiteko gogoa kendu zioten mutikoari baina etorkizunean bidaiari ameslari bihurtzeko hazia erein zuten.

Predestinazioko historia ederra, teresiar kutsukoa ere, ipuin polita non nahasten baitira erromantizismo gogaikarriaren sentimenduzko ametsak, abenturako eleberrien imajinagintza eta Vernereren hemeretzigarren mendeko irakurle askok gustuko izango zuten zama moralizatzailea eta hezitzailea. Ereduzko istorioa, baina faltsua. Axola gutxi horrek, ordea, hainbat hamarkadatan Vernereren bizitza kontatu izan duten guztiei. Benetakoa, egiazkoa, asmatutakoa, amestutakoa... Azkenean kontatutakoak, hitz bihurtutakoak bakarrik balio du. Eta azken batean Vernereren bizitzak hori dirudi, hitzak, literatura.

### **Biografia nahasia**

Obrak pertsonai bat sortu du. Vernerengana hurbiltzen garenean, hainbestekoa da bere produkzioa, ezen ez baikaitu harritzen bere biografiaren inguruan gaizki ulertuak, nahasketak, zurrumurru zehaztugabeak eta egileari buruzko irudi okerrak sortu izanak.

Nahasketa bat: Vernek ez zuen inoiz bidaiarik egin, Amienseko estudioan atera gabe bizi izan zen munduko globo bat eta entziklopedia ugari inguruan zituela. Faltsua. Vernek bidaia asko egin zituen, ez bere pertsonaiek bezainbeste -zergatik egin beharko zuen, bada?-, baina ahal zuen guztietan ontziratzen zen eta denbora luzez nabigatzen zuen Atlantikoan eta Mediterraneoan zehar. Benetan aberatsa izaten hasi zenean belautzi batzuk erosi zituen —Saint Michel I, Saint Michel II eta Saint Michel III.a— eta ahal zuen guztietan nabigatzera joaten zen, bertan idazten zuen, eta benetan zena bezala, ospetsu unibertsala, hartzen eta ohoratzen zuten portuak bisitatu zituen.

Beste nahasketa bat: Verne ez zen zorionsua izan. Umetako amodio batek arbuatua, aitari aurre emanda, emazteak ulertzen ez zuela, semea arerio bihurtuta... Hau ere egia erdizka. Beste gezur bat. Gaur egun badakigu ez zuela umetako amodiorik izan, bere aitak agian ez zuela ulertu semearen bokazio literarioa baina beti lagundu izan ziola diruz idazle izan nahian Parisen egon zen bitartean. Badakigu ere emaztea ez zela senarraren talentua ulertzen ez zuen burges harro bat, baizik eta bizi eta literatur proiektuak partekatuz alboan izan zuen bikotekide ona. Urte askotan semea alproja bat izan zen baina une jakin batetik aurrera idazlearen laguntzailerik onena bihurtu zen eta aitaren azkeneko eta hil osteko lanetako asko berak bukatu zituen.

Zein ederra den bidaiak amesten bere lan gelan itxita bizi den anakoretaren irudia, zein erromantikoa artean babesa bilatzen duen artista ez ulertuaren imajina. Vernek mundu bat irudikatu zuen eta irakurleei oparitu zien. Irakurleok Verne bat irudikatu dugu eta etorkizunari oparitu diogu.

### **Biografia misteriotsua**

Alderdi ilun, enigmatiko, ia misteriotsu asko daude Verneren bizitzan. Hetzel argitaratzaileak deskubritu zuen idazleak nobelagintzarako zuen gaitasun paregabea, orientazioa eman zion bere lehen lanak nola idatzi beharko lituzkeen esanez, egokitzat jotzen ez zuen eskuizkriburen bat atzera bota zion, urtean hiru eleberri idaztera behartzen zuen kontratu bat eskaini zion... Hetzelek eskainitako baldintza ekonomikoak, gehiegizkoak izan gabe, askoz ere onuragarriagoak ziren argitaratzailearentzat idazlearentzat baino, eta Verne aberastu bazen ez zen saldutako liburuei esker bakarrik izan, batez ere eta bereziki Munduari itzulia laurogei egunetan eta Miguel Strogoff lanak antzerkirako moldatuz lortutako irabaziei esker. Zergatik Vernek ez zituen inoiz diru baldintza hobeagoak eskatu? Hasiera batean arrazoizkoa da idazleak editorearekiko duen otzantasuna, agian eskerronez edo leialtasunez. Baina munduko idazlerik garrantzitsuena bihurtu zenean, zergatik mantendu zuen harreman hori? Pierre-Jules Hetzel hil zen arte eta gero haren semearekin, Jules Hetzelekin, Verne idazle otzana izan zen beti, bere editorearen ohar guztiak onartzen zituena eta irabaziak banatzeko baldintza desorekatuak ontzat ematen zituena. Zergatik?

Vernerren bizitzan enigma ugari daude, agian, bizitzak, nobelak ez bezala, ez duelako zertan koherentea eta logikoa izan behar, aldiz, burugabekeriaz eta zentzugabekeriaz beteta dago. Edo, behar bada, badira bai enigma eta misterio harrigarriak. Kondairak dioenez -berriz ere-, hil aurrean Vernek milaka eskutitz eta dokumentu erre omen zituen, agian, enigma bat izaten jarraitu nahi zuelako, eta kriptografiazale zenez, zifratutako ehunka mezu utzi omen zituen bere lanetan, bere bizitzan, baita bere ehortz-lekurako enkargatu zuen hilobi monumentuan ere. Behar bada masoia izan zen, agian ordena klandestinoren batekoa izan zen, agian, agian... Existitu al zen Verne?

Esan ohi da Edmundo D'Amicis, Bihotza lanaren egilea, Amiensean joan zela 1985ean ez Verne ezagutzera, benetan bazela egiaztatzen baizik. Italian zurrumuru bat zabaldu zen, Julio Verne ez zela existitzen eta izen hori literatura lantegi bitxi batena zela, urtean zenbait liburu plazaratzen zuena. Zer da egia istorio eder horretan? Zer da benetakoa Verneren bizitzan?

## **10. jarduera. (saio 1)**

Nahiz eta kronikak egitura nahiko librekoa duten, euren kronika idazterakoan ordena kronologikoa jarraitzea proposatuko zaie ikasleei. Jarduera honetan, Jone Larrañagaren testua antolatu eta izenburu aproposa aukeratuko dute. Gero, euren kronikarako bildu duten informazioa ataletan antolatuko dute, hau da, kronikaren lehenengo eskematxoa sortuko dute.

Beste jarduera posible bat:

<http://www.anboto.org/pdf/anboto-264.pdf> helbidetik ateratako *Nahi eta ezinean dabil Durangoko Kulturala* kronika desordenatuta duzu; ikasleek, ordenatu eta izenburu berria asma dezakete.



Bigarren zatian motelago zelairatu ziren durangarrak. Zalla ere ez zen ezer berezirik egiten ari, baina Kulturalak ez zuen aukera hori aprobeztatzen jakin. Zelai erdian lan bikaina egiten ari ziren Davitxi eta Peio, baina aurrelariak ez zuten atea ikusten.

Peio Bengoetxea zelaiaren kanpoaldetik ari zen aginduak ematen, epaileak kanporatu egin baitzuen protesta egiteagatik.

Erdian Davitxi jarri zuen Bengoetxeak, eta aurrealdean Zaitegi eta Conde. Hirurek erasorako grina erakutsi zuten arren, alferrikakoak izan ziren ahaleginak. Lehenengo zatiko 12. minutuan etorri zen Kulturalaren lehen aukera. Conde izan zen protagonista, baina ez zuen baloia sarera bidali azkenean. David Pereda Zallako jokalaria ere izan zuen bere aukera, baina Kulturalako defentsak ekidin egin zuen gola izan zitekeena. Baloi durangarren hanketan mantendu zuten lehenengo 45 minutuetan eta erabateko nagusitasuna erakutsi zuten. Zalla hasierako minutuetan izan zen protagonista, baina ez zuen aukera handiegirik sortu. 0-0ekoarekin joan ziren atsedenaldira.

Azkenengo minutuek ez zuten futbol maila handiegirik erakutsi. Kulturala saiatu zen gola egiten, baina Zallako defentsa gogorregia izan zen eta ez zuten baloia sarean sartzen jakin.

Kulturalak aldaketak egin zituen ondoren, aurrealdean lan bikaina egiten ari ziren baina ez zuten baloia atean sartzen. Beraz, Peio Bengoetxeak Zaitegi eta Conde zelaitik kendu, eta Pousa eta Zallo aurrelaria sartu zituen gola egingo zuten itzaropenez.

Hamaseigarren postuan daude durangarrak, bederatzi puntu baino ez dituzte eta egoera benetan larria da Kulturalaren aldageletan. Urritxen jokatu du asteburuan Amorebietaren aurka. Ia oraingoan zortetik izaten duten.

Hala etorri zen Zallaren gola: Kulturalako defentsak akats galanta egin zuen eta Cerezo aurrelariak ez zuen barkatu. Area kanpoaldetik bota zuen baloia eta Garamendi atezainak baloia esku artean hartzea lortu zuen arren, baloia oso indartsu zihoan eta hankapetik alde egin zion. 62. minutua zen eta Kulturalako jokalariei etsipen aurpegia geratu zitzaizen Ismael Urtubirenen gola eta gero.

Hiru puntuak oso beharrezkoak ziren Kulturalarentzat, eta arerioa gogorra zela jakin arren ez ziren gaizki aritu. Hala ere, futboleak golak egin behar dira hiru puntuak lortzeko, eta saiatu ziren arren zorteak ez ziren lagundu nahi izan.

Ez zuten batere partidu txarra egin Peio Bengoetxearen mutilek, baina ezin izan zuten Zallakoekin. Partidu polita eta entretenigarria jokatu zuten zapatuan Tabiran. Kulturala bost atzelarirekin zelairatu zen, Zalla taldearen erasorako gaitasunaren beldur.

## 11. jarduera. (saio 1)

Denbora-antolatzaileekin eta lokailuekin aritzeko ariketa duzue hau.

Interesgarria izan daiteke ikasleek beste lokailu eta testu-antolatzaile batzuen zerrenda izatea, nahiz eta aurreko mailetan ikusita izan.

[http://www.santurtzieus.com/gelairekia/laguntza/joskera/denbora\\_perpaus.htm](http://www.santurtzieus.com/gelairekia/laguntza/joskera/denbora_perpaus.htm)

### LOKAILUAK

<b>Emendiozkoak</b>	<b>Hautakariak</b>	<b>Aurkaritzakoak</b>	<b>Ondoriozkoak</b>	<b>Kausazkoak</b>
ere	bestela	ordea, berriz	beraz	zeren
ere bai, ere ez	osterantzean	ostera, aldiz	bada	zergatik
baita... ere	gainerakoan	aitzitik, alabaina	hortaz	ezen
ezta... ere	gainontzean	bizkitartean	orduan	alabaina
gainera	ezpabere	dena dela/den	honenbestez	bada
bestalde		hala ere	horrenbestez	izan ere
halaber		hala eta guztiz ere	hala	
orobat		haatik, horratik	halatan	
behintzat		barren		
bederen				
behinik behin				
gutxienez				

## TESTU ANTOLATZAILEAK

### Hasiera

Hasteko, hasteko esan dezadan, lehenengo eta behin, aztertuko dugun gaia, idazki (hitzaldi) honen bidez, idazki (hitzaldi) honen helburua, ...-z hitz egin behar dudalarik, batez ere, egun hartan, ezer baino lehen, bazen behin, lehen-lehenik, gizona mundura baino lehen, dena ... hasi zen...

### Ordena

Baita ere, ildo beretik, honako hau, honekin batera, bestek beste, era berean, bigarrenik, ez hori bakarrik, gorago esan bezala, lehen (arestian) esan bezala, are gehiago, beste batzuetan, honen ondoren, berriro ere, gisa berean...

### Hierarkizazioa

Batez ere, guztien gaintetik, baino gehiago, batik bat, ez bezala, ezer baino lehen, ez ezik ... ere...

### Idea berriak

Gainera, egia esan, modu berean, ez ezik ... ere, are gehiago, bestetik, halaber, eta, ez hori bakarrik, bestalde, baita ere, ere bai...

### Kontrastea

Dena delarik ere, horren aurka, esanak esan, edozein modutan ere, hori horrela izanik ere, zernahi gisaz (ere), aurrekoaren kontrara, kontuan hartu baina, datorrena datorrela, hori gorabehera, kontuan izan bestetik, nolnahi ere...

### Beharrezana

Derrigorrez, ezinbestean, ezinbestekoa da, nahitaez, halabeharrez, beharrezkoa da...

### Jarraipena

Honen ondoren, hariarekin jarraituz, era berean, bigarrenik, baita ere, gero, honen ostean, hau ikusi eta gero, hau ikusi ondoren, bigarrenez, honez gain, aurrera beharrez...

### Arrazoia

Bait-, -nez gero, -la bide, zeren eta, horregatik, -lako, -la eta, -la kausa, behin eta berriro, -tzarren, -teagatik, preseski...

### Denbora

Lehen, gaur egun, orduan, gero, antzina, egun batez, XXI. mendean, orain, hasieran, lehenengo egunean, azkenik, behiala, halako batean, beranduago, laster, lehenengo, orain arte, behin (batean), 1997an...

### Exenplutasuna

Adibidez, konparazio baterako, hori argitzeko, alegia, eman dezagun, konkretatuz gero, esate baterako, demagun, bestek beste, hau da, pentsa dezagun, esaterako, kasu, aipa dezadan, hots, besteen artean...

### Ziurtasuna

Ez dago dudarik, onartu behar da, segur aski, onartuta dagoenez, nola ez!, zer esanik ez, noski, ziurrenez, hala bada ere, onartzen denez, egia da, dudarik gabe, jakina, benetan, zinez, ez bairik gabe, ez dago zalantzarik, argi dago, denok dakigu, ziur egon, jakina denez, bistan dago...

### Balorazioa

Zorionez, tamalez, espero dezagun, zoritxarrez, eskerrak, ez legoke gaizki, espero izan...

### Bukaera

Bukatzeke, amaitzeko, laburbilduz, konklusio gisa, amai dezagun esanez, azkenez, azkenik, eta besterik gabe, honela, laburtuz, hitz gutxitan, bukaeran, honek zera erakusten digu, horrenbestez...

### Indartzea

Aipatu bezala, batez ere, beste era batera esanda, gauzak horrela, hain zuzen ere, lehenengo hariari jarraituz, mila bider esana dugun bezala, aipatu dugunez, berriro esanda, dakizuenez, dakikezuenez, hau azpimarratzeko, hori horrela delarik, esanak esan...

### Lekutasuna

Hemen, hor, harantzago, beste tokietan, -en alboan, goian, behean, urrutirago, eskuinean, atzean, aurrean, atzeko aldean, -tik gertu,...

### Parekidetasuna

Era berean, alde batetik, beste (konparazioan), ezta ere, bai ... bai, bezala, halaber, bestetik, bezain, baita ere, dela ... dela, legez, orobat, adina, lain, moduan, antzera...

### Probabilitatea

Dirudienez, agidanez, antza, omen, ei, inondik ere, itxura denez, itxuraz, badirudi, nonbait, esan daiteke, beharbada, agian, onenean (ere), diotenez, baliteke, apika, seguru asko, nonbait, dirudienez, antza denez, baliteke, susmatu, uste izan, izango zen, izan zitekeen, omen, ote...

### Ondorioa

Esandakoaren arabera, laburki, hau guztia dela eta, funtsean, argi dago, bada, honen ondorioz, horren kausaz, esanak esan, on litzateke, hau dela bide, ... kontuan izanik, hain zuzen ere, hori dela medio...

<http://www.eoidurango.net/pro-cas/eusgz.doc>

## 12. jarduera. (saio 1)

Lexikoa lantzeko ariketa dugu hau. Ikasleen lexikoa aberasteko helburua du; horrela, sinonimoak erabiltzera bultzatu nahi ditugu errepikapenak saihestearren.

Sarean dauden sinonimoen hiztegiak erabil ditzakete <http://www.hiztegia.net/> helbidean sartu eta han UZEIko sinonimoen hiztegia eta Kultura Saileko sinonimoen eta antonimoen hiztegia daude erabiltzeko moduan.

## 13. jarduera. (saio 1 eta erdi)

Esan dugunez, ikasleei euren kronika idazteko ordena kronologikoa erabiltzea proposatuko diegu.

Kronikaren zirriborroa eta testu garatua ordenagailuz egin ditzakete aukera izanez gero; horrela, ordenagailuak dituen baliabideak erabiliko dituzte, esate baterako, zuzentzaile ortografikoa.

# 4. lan-sekuentzia

## 14. jarduera. (saio erdi)

Alde batetik, entzumena lantzeko jarduera dugu hau; eta bestetik, irratan ahotsak duen garrantzia aztertzekeo jarduera da, kontuan izan behar dute entzuleek ez dituztela irrati-esatariak ikusten. Hori dela eta, ahotsarekin eta soinuekin ahalik eta informazio gehien helarazi beharko dute, komunikazio-prozesua arrakastatsua izan dadin.

Hainbat irrati-nobela dituzue honako helbide honetan:

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/irratinobelaklista>

Irrati-nobela beste genero bat bada ere, ahotsak irudimena pizteko duen ahalmenaren adibidetzat hartu nahi izan dugu, ikasleek ondoren egin behar duten irakurketa espresiborako motibazio egokia izan baitaiteke.

## 15. jarduera. (saio erdi)

Jarduera hau interakzioa bultzatzeko pentsatuta dago, ikasleek eztabaidatu egin beharko dute, ezaugarri batzuk ez dira-eta sailkatzeko hain errazak.

1. Modu egokian janzten da.	2. Argi eta ozen ahoskatzen du.
3. Harreman ona du lankideekin	4. Astiro hitz egiten du.
5. Txiklea jaten dagoela hitz egiten du.	6. Lotsatia da.
7. Akats gramatikal asko egiten ditu.	8. Etenaldiak egiten ditu.
9. Testua barneratuta du	10. Hainbat ahots doinu imitatzeko gai da.
11. Guztiek entzuteko, oihuka ari da.	12. Lelokeriak esaten ditu.
13. Esatariak esaten duena erraz ulertzen da.	14. Esaten duen guztia irakurri egiten du; horrela, ez zaio ezer ahazten.
15. Sinesgarria da.	16. Entzuleak errespetatzen ditu.
17. Entzuleen arreta lortzeko esaldi harrigarri batekin hasten da.	18. Bizikletaz doanean, ez du kaskorik jartzen.
19. Ahapeka hitz egiten du.	20. Irribarre egiten du.
21. Bera entzutea atsegina da.	22. Oso ona da tenisean.

## 16. jarduera. (saio erdi)

Jarduera hau instrukzio idatziaren ulermena garatzeko dago prestatuta eta ikasleen interakzio bultzatzeko ere bai.

## 17. jarduera. (saio 1 eta erdi)

Alde batetik, idatzizko hizkuntza eta ahozko hizkuntzaren arteko aldeaz konturatzeko balio du, beste alde batetik, puntuazio-markek duten garrantziaz konturazteko ariketa da.

Lehenengo zatirako [puntuazio-markei](#) buruzko testua baliabideen karpetan dago. Horretan sakondu nahiz gero, HABEko testu hori azter dezakete, eta ondoren, honako ariketa osagarri hau egin dezakete.

- a. Bikoteka, testua irakurri eta ulergarri egiteko falta dituen puntuazio-markak jarri.

### **Komunera joatea; aspergarria al da?**

2007-01-19

Ba al zenekiten pertsona batek urte bat lau hilabete eta bost egun igarotzen dituela batz bestekomunean Zergatik ez dugu toki hori atseginagoa egiten AEBetako enpresa batzuk lanean hasi dira toki hau aspergarria izan ez dadin Kaliforniako enpresa batek merkaturatu berri du oso komun bitxi bat Ur-gordailua arrain-ontzi batengatik aldatu dute Fish'n Flush sistema komun-ontzi berezia da Aurrealdean arrain-ontzi bat du atzeko ur-gordailua estaltzen duena Gainera, arrainak ez badituzu gustuko, akuarioak beste animalia batzuk sartzeko aukera ematen dizu Sekretua zein den jakin nahi duzu Egia esan ez da beste munduko ezer. Ur gordailu hau material akrilikoaz egin dago Hala ere gure ustez onena animalia denda batera joatea da gustuko duzun maskota hori egokia den jakiteko Ez da ideia txarra ezta Ba interesatuta bazaude jakinarazten dizuegu interneten dagoela erosgai eta 299 dolarreko salneurria du.



Atala: [Bitxikeriak](#) | (2) [Iruzkin](#)

Baliabideen karpetan, testu bat dago, bigarren zatian, hau da, [aldaketa fonetikoetan eta azentuan](#) sakontzerakoan lagungarri izan daitekeena.

Euskaraz ez da azentua grafikoki adierazten, baina egon badago. Batzuetan oso azentu markatua gainera. Arazoa zein da, beraz? Bada, toki guztietan azentua ez dela berdina eta, gainera, oraindik ondo ikertu gabeko zerbait da. Baina horrek ez du esan nahi ez dugula azentua zaindu behar eta edozein

silaba indartu genezakeela. Azentuari erreparatu behar diogu gure ahozko jarduna naturala izatea nahi badugu.

Taula honetako proposamenak kontuz aztertu beharra dago; gehienbat, azentua non doan asko aldatu baitaiteke leku batetik bestera. Inguruko ereduari jarraitzea proposatzen da hemen, eurentzako naturalena izango baita. Horregatik, hemen proposatutako adibideetatik batzuk aldatu egin ditzakezue, kendu edo berriak gehitu.

IDATZI	AHOSKATU	IDATZI	AHOSKATU
ez zion	etzión	zeuk dakizu	zeutákizù
ez dago	eztágo	hil zen	hiltzén
ez nekien	enékien	etor zaitetz	etórtzaitèz
ez luke	elúke	maila	málla (Hg.) maila (Ip., Arr.)
izan zen	izantzén	mutila	mutílla (Hg.) mutila (Ip., Arra.)
ez badu	ezpádu	mina	míña (Hg.) mina (Ip., Arra.)
ez gara	ezkára	baina	báña (Hg.) baina (Ip., Arra.)
ez dut uste	eztútustè	ehun eta bi	ehúndabì

(Hg.) Hegoaldean

(Ip.) Iparraldean

(Arra.) Arratia

“Irakurketa espresiboa” ariketako jardunak grabatzea proposatzen zaie ikasleei; horrela, ikasle bakoitzak bere jarduna aztertzeko aukera izango du.

## 5. lan-sekuentzia

### 18. jarduera. (saio erdi)

Jarduera honetan, transferentzia negatiboei buruzko hausnarketa egin beharko dute, euskararen ezaugarri bereizgarri batzuk aztertuz: perpausaren elementuen ordena eta ordenaren zurruntasun eza. Eta hizkuntza idatziaren eta ahozkoaren arteko aldeei buruzko hausnarketa egiteko aukera ere izango dute.

Jardueraren zuzenketa honako hau izan daiteke:

...Azkenean, denen artean lortu zuten [hiru frantziarrek onik erreskatatzea](#). [Hura bai hura garaipena](#).

Musika

Zapore mingotsa gerorako gertakariak utzi diete egia esan. Asteazkenean, Rio Blanco kanpamenduan hartu zuten [atsedena](#), eta ostegunean, joan zeneko ostegunean, erabaki zuten [Paso Superiorrera igotzea](#). Hurrengo egunerako azken ahaleginaren itxaropena gordeta, nekeak jota, erreskate jardunagatik eta eguraldi iragarpen txarrarekin, [baina hala ere gora](#). Osteguna zen [eguraldi oneko eguna](#), hainbat eskalatazaileek ondo probestu zuten [gailurrera irizteko](#). Hainbat horien artean, asko ziren [aurreko egunean erreskatean parte hartzeari uko egin ziotenak](#).

Musika

Bada, gora igo ziren, [Eneko eta Iker bai](#), baina alperrik. Ostiralean, eguraldiak berriro okerrera, eta hartatik, [amore eman behar...](#)

Urdinez, testu idatzian aurrerago agertuko dena dago. Gorriz, aditz gabeko esaldi labur batzuk daude.

Testu osoaren transkripzioa baliabideen karpetan dago; irakasleak, nahi izanez gero, beste zati batzuk atera ditzake ikasleek aztertzeko.

### AHOZKO TESTUEN EZAUGARRIAK

1. Esaldiaren ordena aldatuta: garrantzizko informazioa atzerago
2. Esaldi batzuk aditz gabe
3. Esaldi laburrak edo etenaldi nahiko
4. Azalpen estra edo errepikapenak ugari dira
5. ...
- 6.

### 19. jarduera. (saio 1)

Jarduera honen asmoa praktikatzeak eta antolaketa ona izateak daukan garrantzia ulertzea da.



## 20. jarduera. (saio 2)

Irrati-kronika grabatu egingo duzue; horretarako, [Audacity programa](#) erabil dezakezue (hori nola erabili azaltzen duen testu bat duzue baliabideen karpetan). Ikasleek honako txantiloia hau erabiliko dute besteen irrati-kronikak ebaluatzeko.

KRONIKA-EMANALDIA EBALUATZEKO TXANTILOIA			
TALDE LANA	BAI	EZ	
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Denbora jakin batean eta toki jakin batean gertatu diren ekintzak kontatzen ditu.</li> <li>2. Berriak gaurkotasuna du (orduko momentuan).</li> <li>3. Era polit eta entretenigarrian kontatzen du.</li> <li>4. Esataria lekuko edo protagonista da.</li> <li>5. Koherentea da: ondo egituratuta...</li> <li>6. Kronologikoki kontatzen du.</li> <li>7. Esatariaren interpretazioa agertzen da.</li> <li>8. Hizkera bizia eta jatorra, ondo kohesionatuta: adizki egokiak, lexiko aberatsa, ikasitako esamoldeak</li> <li>9. Diskurtsoa egoki lotuta: lokailuak, testu-antolatzaileak...</li> <li>10. Zuzentasunari lotutako akatsik? Aditzak, perpausak...</li> <li>11. Ahozkorako ondo egokituta, jarraitzeko erraz.</li> <li>12. ...</li> </ol>			
TALDEKIDE BAKOITZAREN LANA	1.	2.	3.
<ol style="list-style-type: none"> <li>13. Ahoskera egokia.</li> <li>14. Denek entzuteko moduko bolumena.</li> <li>15. Abiadura egokia.</li> <li>16. Etenaldi egokiak.</li> <li>17. Dramatizazioa, tonu aldaketak behar direnean.</li> <li>18. Kontaketa barneratuta, ez zuzenean irakurria.</li> <li>19. Elkarketa fonetiko egokiak.</li> <li>20...</li> </ol>			

## DENBORALIZAZIOA

Jarduerak	Denbora
0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa	Saio 1
<p><b>1. lan-sekuentzia.</b> <b>Kronika, narrazio-generoetako bat</b></p> <p>1. jarduera. Narrazioak nonahi 2. jarduera. Kroniken ezaugarriak zehazten 3. jarduera. Egun, kronikak nolako eta norentzat 4. jarduera. Kronikaren gaia erabaki behar dugu</p>	4 saio
<p><b>2. lan-sekuentzia.</b> <b>Gertaerak nola kontatu aztertzen</b></p> <p>5. jarduera. Irrati-kroniken ezaugarriak 6. jarduera. Nork eta zelan kontatzen du kronika? 7. jarduera. Informatu eta interpretatu 8. jarduera. Zuen kronikaren ezaugarriak zehazten</p>	4 saio
<p><b>3. lan-sekuentzia. Kronika ondo idazten</b></p> <p>9. jarduera. Ondo idaztea prozesu luzea da 10. jarduera. Kronikaren eskema egiten 11. jarduera. Kronikaren ardatz kronologikoa 12. jarduera. Lexikoa lantzen 13. jarduera. Bizitako gertaera kontatzen</p>	6 saio
<p><b>4. lan-sekuentzia. Narrazioen dramatizazioa</b></p> <p>14. jarduera. Irrati-nobelak 15. jarduera. Esatari onaren ezaugarriak 16. jarduera. Dikzioa hobetzeko ariketak 17. jarduera. Intonazio eta ahoskera egokia ahozko testuetan</p>	3 saio
<p><b>5. lan-sekuentzia. Irrati-kronika grabatzen</b></p> <p>18. jarduera. Kronika ahozko jardunerako egituratzen 19. jarduera. Praktikatzen 20. jarduera. Entzuleentzako grabatzen</p>	3 saio
Ebaluazioa	20 min.